

Gure bezero nagusiak elkarteko kideak izango dira. Hau da, formakuntzak Hontza Familia elkarteko kideei zuzendua izango dira baina honetaz gain, gairen batean norbanakoren bat interesatuta balego, ez dugu inolako arazorik izango harekin jarduteko eta baita gaian gehiago sakontzeko.

Familia elkarte bat garen heinean zenbait formakuntza ematerako garaian aliantzak egingo ditugu gaiarekiko adituak diren horiekin, hots, ikastetxeekin, haur psikologoekin, aisialdi taldeekin, ikastaroak esaterako elkarte edota profesionalekin, hikhasik.

Batetik, Durangoko haur eskola publikoareki, Kurutziaga ikastolarekin eta San Jose Jesuitak ikastetxearekin harremanetan egongo gara, hala urtean bi bilera eginez hiru zentroekin. Durangotik at, elorriko haur eskolarekin ere harremanetan egongo gara hauekin ere urtean bi bilera eginez. Gainera, Bizkaiako hiriburuarekin ere harremanetan egongo gara, Bilboko Abuso ikastolarekin.

Ikastetxe eta zentro ezberdinekin harremanetan egotea baliagarra ikusten dugu errealitate eta jardun desberdinez jabetu eta egunean egoteko. Esaterako, Kurutziaga ikastolan hezkuntza laiko bat aurkituko dugu eta aldiz San Jose Jesuitak ikastetxean hezkuntza erlijioso bat. Bestalde, Elorrio, Durango eta Bilboko errealitateak oso desberdinak dira. Elorrion, naturarekiko kontaktu zuzenean aurkituko ditugu haur eta familiak, izan ere, mendiz inguraturik baitago. Aldiz, Bilbon errealitate ezberdin batekin topatuko gara non hiria izanik pantaila gehiagoz inguraturik egongo diren bertako biztanleak eta familiek naturaren inguruko zaintzaz jakinmina, iritziak izango dituzten.

Bestetik, Durangoko Gran Vía Psikologikoarekin jardungo dugu, datu bilketa eta egungo haurren osun mentalean pirpilean dauden egoerez eguneratuta egon eta jakintza bat izan dezagun.

Zirimola aisialdi taldearen norndik norakoak jarraituko ditugu, hauekin harremanetan egonik.

Hala ere badakigu eta kontziente gara, zenbait gai garrantzitsu eta egun pilpilean daudenak landu beharko ditugula. Horretarako, momentu oro formatzen joango gara laurok.

Gure aburuz, familiek interes zuzena izango dute gure elkartean. Izan ere, familiek ez baitakite nora joan gomendio edota informazio bila haurrak hezitzerako garaian sortzen zaizkien duda eta arazoen aurrean. Hortaz, badelako egun gure artean eta beraz gizartean dagoen hutsune bat.

Proiektua aurrera eraman ahal izateko, bazkide bihurtuko dira elkartera sartzen diren familia kide berriak. Horretaz gain, edozein herrialdetatik etortzen diren pertsonak ere kideak izateko eskubidea dute, hau da, elkarte anitz bat sortu nahi dugu. Izan ere, ez da inor

baztertua izango haren erlijio, kultura, arraza, orientazio, identitate, eta abarreko kontuengatik.

